

Zergatik erabili behar dute gona neskek eskola-jantzietan?

Sekuentzia honetan:

- Modu jakin batean janztera derrigortzen duten zenbait lanbide, erakunde eta egoera zerrendatuko dituzu.
- Zerrenda egin ondoren, ikaskide batekin komentatuko duzu.
- Albiste baten berri ematen duen bideo bat ikusiko duzu eta, bitartean, aipatzen diren lanbideak, erakundeak eta egoerak identifikatuko dituzu.
- Albiste berriro entzun bitartean, aukera anitzeko galdera batzuk asmatu beharko dituzu.
- Amaitzeko, zeure iritzia eta esperientziaren berri emango duzu gaiaz.



Modu jakin batean janztera behartu

1. Zerrendatu taula honetan modu jakin batean janztera derrigortzen duten zenbait lanbide, erakunde eta egoera.

Lanbideak	Erakundeak	Egoerak
Epailea	Polizia	Jaietako Konpartsak



2. Binaka, alderatu zure zerrenda beste ikaskide baten zerrendarekin, eta komentatu zergatik behartzen zaituzten hala janztera kasu bakoitzean.

Ikusi Bideoa

3. Bideoa ikusiko duzu orain. Zer lanbide, erakunde eta egoera agertzen dira bertan?



Klinika bateko emakumezko erizainek:

- Klinika salatu zuten gona erabiltzera behartzeagatik.
- Klinika salatu zuten gona laburregia erabiltzera behartzeagatik.
- Klinika salatu zuten uniformeak erabiltzera behartzeagatik.

Klinikaren auzian, hauxe ebatzi du Auzitegi Gorenak:

- Emakumezko erizainak gona erabiltzera derrigortzea bereizkeria dela.
- Gizonezkoek nahiz emakumezkoek erabil dezaketela gona.
- Eskola-jantzieta ere aplikatu beharko litzatekeela bere ebazpena.

25 ikastetxeetan galdetuta, hauxe da jaso duten erantzuna:

- Neskek gona erabili behar dutela, eta mutilek prakak.
- Neska-mutilak prakak erabiltzera behartuta daudela.
- Neskak prakak erabiltzera behartuta daudela.

Hainbat ikastetxetan bila eta bila ibili ostean, kazetariak:

- Ez dute neskei gona nahiz prakak jantzeko aukera ematen dien ikastetxerik aurkitu.
- Batean besterik ez diete neskei aukera ematen gona nahiz prakak jantzeko.
- Ez dute uniformeak erabiltzen ez den ikastetxerik aurkitu.

Aukeran jarritz gero, neskek:

- Gehienbat, prakak erabiltzen dituzte.
- Gona erabiltzen dute, gehienbat.
- Gona nahiz prakak erabiltzen dituzte, biak igualtsu

Eman iritzia: gona erabili behar dute neskek lanean?

5. Albistea entzun ondoren, talde handian, eman zure iritzia honako hizpideen inguruan:

- Zer iritzi duzu gaiaren gainean? Ados zaude auzitegiaren ebazpenarekin? Zergatik?
- Denok joan gara ikastetxera, zein da zure esperientzia kontu honetan? Askok aldatu dira gauzak ala berdintzen dute?



Zuzenketa-orria

Ikusi bideoa

Klinikaren auzian, hauxe ebatzi du Auzitegi Gorenak:

- ✓ Emakumezko erizainak gona erabiltzera derrigortzea bereizkeria dela.

Klinika bateko emakumezko erizainek:

- ✓ Klinika salatu zuten gona erabiltzera behartzeagatik.

25 ikastetxeetan galdetuta, hauxe da jaso duten erantzuna:

- ✓ Neskek gona erabili behar dutela, eta mutilek prakak.

Hainbat ikastetxetan bila eta bila ibili ostean, kazetariak:

- ✓ Batean besterik ez diete neskei aukera ematen gona nahiz prakak jantzeko.

Aukeran jarritz gero, neskek:

- ✓ Gona erabiltzen dute, gehienbat.

Transkripzioa

Ikusi Bideoa

Zergatik erabili behar dute gona laburra neskek eskola-jantzietan?

Esataria.- 2008. urtean Cadizeko klinika baten erizain batzuek enpresa salatu zuten gona erabiltzera derrigorrezagatik. Lanerako jantzi gisa gizonezkoen galtzak erabili nahi zituzten emakumezkoek. Auzitegi Gorenak arrazoia eman zien. Lan-jantzian gona derrigorrezkoa izatea arrazoi gabeko bereizketa zela ebatzi zuen auzitegiak. Orain dela aste batzuk Espainiako 18 talde feministak kanpaina bat abian jarri dute. Ebazpena eskola-jantzietan aplikatzeko eskatzen dute.

Emakumea 1.- Gonak mugimenduak asko murrizten ditu, eta oztopo bat bihurtzen da ekintza askotan neskek parte hartzeko mutilekin batera.

Esataria.- Euskadin ez dago eskola-jantzia duten ikastetxeen zerrenda ofizialik, baina eskola-jantzia erabiltzen duten itunpeko 25 ikastetxeetan galdetu eta erantzun bera jaso dugu: neskek gona behar dute; mutilek prakak. Itunpeko sarean guraso-elkarte gehienak biltzen dituen federazioaren iritzia bilatu dugu. Azken 8 urteetan inork ez die inoiz horrelako kezkarik planteatu.

Federazioko ordezkaria. – Agian umearen ikastetxea aukeratzen dugunean eskola-jantzia den bezalakoa onartzen dugulako, edo jendeak ez diolako garrantzirik ematen.

Esataria.- Agian hala izango da baina bila eta bila ibili gara eta, azkenean, salbuespena aurkitu dugu.

Fatima ikastetxeko ordezkaria.- (Colegio Esclavas-Fatima Bilbao, bai, esan). Ba, orain dela 3 urte estatu mailan ditugun ikastetxe guztietan uniforme bera jarri zenean eta ikusita gizartean normaltasun osoz hartzen dela bai mutilak eta bai neskek prakekin ibiltzea, ba, hori uniformera eraman zen.

Esataria.-Argi dago, baina aukeran neskek zer nahiago izan dute?

Fatima ikastetxeko ordezkaria.- Neskek, gehiengo bat, gona eramaten dute.

Emakumea 1.- Eman dezatela askatasuna!

Fatima ikastetxeko ordezkaria.- Eta gizartean hain onartuta dagoenez eta normala denez bai gona, bai prakak eramatea, ba eskoletan ere bai [sic] uste dugu aukera berbera egon beharko litzatekeela.

Emakumea 1.- Gure ustez, zentro kontzertatu batek berdintasun-printzipioa bete behar du derrigorrez.